

17/08/2019

Ganberako opera bat eta bost estreinaldi Hamabostaldiko Musika Garaikideko Zikloan

Bost kontzertuk osatzen duten zikloa abuztuaren 18tik 28ra bitartean ospatuko da. Proposamenetatik lau Kursaaletako Erabilera Anitzeko Aretoetan egingo dira, bosgarrena, berriz, Tabakalera.

Estreinatuko dituzten bost obrak Voro García, Adrián Borredá, Hugo Morales eta Teresa Catalán konpositoreenak dira.

Tom Johnsonen “Lau Noten Opera” lehen aldiz euskaraz entzun ahal izango dugu zikloan, Musika Hamabostaldiak eta Tabakalerak egindako lankidetzari esker.

Abuztuaren 18ko igandetik hasita, hamar egunetan zehar, musika garaikideak hartuko du beste behin erdigunea Musika Hamabostaldiaren egitarauan. **Musika Garaikideko Zikloa** joera berrienetan murgildurik dauden konpositore eta interpretatzaileei jaialdiak eskaintzen dion gunea da. Urtero erakarri ohi du publiko leihal eta apartekoa. Oraingoan, **abuztuaren 18, 22, 23, 25 eta 28an** ospatuko diren bost proposamenek osatuko dute zikloa. Ohi denez, Kursaaletako Erabilera Anitzeko Aretoak hartuko ditu lehen hiru kontzertuak, baita azkenekoa ere. Abuztuaren 25eko hitzordua, aldiz, **Tabakalerako Patioan** izango da, ziklo honetako kontzertu bat han egiten den lehen aldia izango delarik.

Urtero gai ezbedin bati buruzkoa izaten da Musika Garaikideko Zikloa. Aurten, musika garaikidean aurkikuntza garrantzitsuak egin dituzten aitzindariak izango dira ardatza: George Crumb-ek instrumentu anplifikatuak erabili izana, Tom Johnson-ek opera minimalista garatu izana edo Silboberriren eskutik txisturako erreperitorio berria bultzatzea, esaterako. Musika berria ere izango da zikloan, Voro Garcíaren (2), Adrián Borredáren, Hugo Moralesen eta Teresa Catalán-en bost partitura estreinatuko baitira.

Silboberrik Voro Garcíaren “Bestearen aztarnak” estreinatuko du abuztuaren 22an. Era berean, Synergiein Project taldeak gauza bera egingo du ondoko konpositoreei enkargatutako obrekin: Adrián Borreda (“Cantos III”), Hugo Morales (“Modelos automáticos de labor humana”) eta Voro García (“La luz no basta”). Zikloan zehar Tom Johnsonen “Lau Noten Opera”-ren euskarazko bertsioa ere aurkeztuko da, abuztuaren 25ean. Azkenik, Trío Arbós taldeak Teresa Catalánen “Larrazpileko jentilen trikuharririk” aurkeztuko du, Musika Hamabostaldiak egindako enkargua.

Estreinaldiez gain, zikloak musika garaikidera hurbiltzeko hainbat bide eta proposamen eskainiko ditu. Taller Atlántico Contemporáneo taldearen kontzertuan, esaterako, **musika garaikidearen “klasiko” bat omenduko dute**, George Crumb konpositorea, hain zuzen ere. Bestetik, **perkusiorako konposizio joera berrienetan** murgilduko gara Synergiein Project-ekin. Silboberrik, ostera, oraindik esplotatzeke asko duen **txisturako espreski sortutako musika berria** emango du ezagutzera. Trío Arbos hirukoak **ganberako musika formatu finkatuenetarikoa den pianodun hirukoterako** literatura berria aurkeztuko du. **Ganberako opera** ere eskainiko du zikloak, azken hamarkadetan sortutakoetatik arrakastatsuenarekin: Tom Johnson konpositorearen *Lau Noten Opera* euskal musikariz osatutako talde nabarmenak interpretatuko du.

TALLER ATLÁNTICO CONTEMPORÁNEO – Abuztuak 18, 20:00 – Kursaaletako Erabilera Anitzeko Aretoak

George Crumb konpositoreari eskainitako programa monografikoak ekingo dio Musika Garaikidearen Zikloari, musikariak 90 urte betetzen dituen honetan. John Cage-ren ondoko konpositore estatubatuarretatik itzal handienekotzat jotzen da Crumb. Hirurogeigarren hamarkadan instrumentu klasikoak aplikatzen hasi zen, instrumentuotan ezkututzen ziren soinurik txikiak ezagutu nahian. Sortu zuen musikaren erresonantzia misterioetsuek Federico García Lorcaren poesia iradokitzaile eta onirikora jotzen du askotan. Taller Atlántic Contemporáneo taldeak Crumb-en hiru obra esanguratsuenak aukeratu ditu kontzertu honetarako: *Madrigalesen Bigarren Liburua*, *Vox Balaenae* eta *Night Music*.

Taller Atlántico Contemporáneo (TAC) taldeak 2010eko martxoan hasi zuen bere ibilbidea Santiago de Compostelako Praza do Obradoiron, Mauricio Kagel konpositorearen *Eine Brise* 111 txirringaririk batera musika egiteko idatzitako obrarekin. Taldeak bere webgunean deialdi bat egin zien herritarrei, ekimenean parte hartzeko. Lehen ekitaldi errepikaezin hartatik, TAC Galiziako bizitza musikaren zutabe sendoteko bat bihurtu da. Joera berritzaileenei, musika esperimentalari eta diziplina anitzeko proposamenei jartzen die bereziki arreta. Diego García Rodríguez izan da sorreratik musika talde honen zuzendaria.

SILBOBERRI TXISTU ELKARTEA – Abuztuak 22, 20:00 – Kursaleko Erabilera Anitzeko Aretoak

Durango 1998an Berzitu izenarekin sortutako Silboberri elkarteak ezinbesteko eragilea izan da euskal folkloreak zutabeetako bat den txistua eraberritzen. Azken 20 urteetan txisturako ehunka obra enkargatu, estreinatu, argitaratu eta grabatu dituzte, instrumentuaren aukera tekniko eta estetikoak zabalduz. Musika Hamabostaldian emango duten kontzertuan, literatura horretako proposamen berrienak aurkeztuko dituzte. Horien artean izango dira Euskal Herrikoak ez diren César Camarero eta Voro García konpositoreei enkargatutako obrak. García-ren kasuan, *Besteen Aztarnak* txisturako, danbolinerako eta akordeoirako obra estreinatuko dute. Euskal autoreen obrak ere entzun ahal izango ditugu: Caros Villasolenak, Félix Ibarrondorenak eta Joseba Torrenak.

Silboberri elkarteak Durango du egoitza eta han garatu ohi ditu bere ekintza gehienak. Bere helburua txistuaren errepertorioa eguneratu eta aberastea da, obrak enkargatu eta ondoren kontzertuetan estreinatuz, grabatuz eta argitaratuz. Lan pedagogikoa ere egiten dute konpositoreei eskakizun zehatzak eginda (txisturako eta pianorako obra bildumak), kontserbatorioko ikasleentzat. Lan horiek CDetan eta partituretan argitaratzen dituzte. Aldi berean, ikerkuntza lanak ere egiten dituzte, txisturako lan zaharrak berreskuratuz, berrikusiz eta argitaratuz, edota txistuaren eta bere familuaren garapen organologikoan lan eginez eta instrumentuaren eraikuntzan hobekuntzak aplikatuz.

SYNERGEIN PROJECT – Abuztuak 23, 20:00 – Kursaleko Erabilera Anitzeko Aretoak

XX. mendean perkusioa orkestratik independizatu zenetik, perkusionistak beti egon dira musika sorkuntza berrienen bilaketan murgilduta. Synergein Project Espainiako perkusio talde aktiboenetariko bat da eta beti arriskatzen dira haien proposamenean. Egungo perkusioaren ikuspegi zabala erakutsiko dute, baita jotzeko eta eszenaratzeko askotariko praktikak ere. Hiru estreinaldi egingo dituzte kontzertu honetan, haiek enkargatutako lanak guztiak: Adrián Borredá-ren *Cantos III*, perkusio eta elektronika hirukotea; Hugo Morales mexikar konpositorearen perkusio

duo berri bat; eta Voro García valentziarrak konposatutako perkusio hirukoterako pieza berri bat. Voro García-k aurtengo Musika Garaikideko Zikloan egingo duen bigarren estreinaldia izango da. Gainera, Benamin Hackbarth-en, José Luis Torá eta Luis de Pablo-ren hainbat obra ere interpretatuko dituzte.

2014. urte amaieran Sisco Aparici perkusio kontzertistaren eta Vincent Gómez musika elektroakustikoko konpositore eta interpretatzailearen zuzendaritzapean sortutako proiektu pedagogiko-musikala da Synergiein Project. 2016an Juanjo Llopico perkusionista batu zitzairen. Egungo musikarekiko ezagutza, sorkuntza, pedagogia eta interpretazioarekiko pasio handia duten hiru musikari dira. Proiektuaren oinarria irekia eta malgua da: proiektu artistiko eta pedagogiko ezberdinetara moldatzen da, izan proiektuok musikalak edota diziplina anitzekoak. Esperimentazioari eta teknologia berriei zabalik daude, eta obra berriak sortzeko helburua dute, adierazpen eta interpretazio modu berriak sortzeko eta musika garaikideko errepertorioa aberasteko.

“LAU NOTEN OPERA”, TOM JOHNSON – Abuztuak 25, 20:00 – Tabakalerako Patioa

Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak lehen aldiz hartuko du zikloko ikuskizunetako bat, eraikin karismatikoko patioan taularatuko duten formatu txikiko opera bat, zehazki. 1972an Tom Johnson konpositorean bere *Lau Noten Opera* estreinatu zuenean, ezinezkoa zirudien balentria egin zuen: operak irauten duen 65 minutuetan, la, si, re eta mi notak erabiltzea soilik. Material soil-soil horrekin, generoaren berrikuspen kritiko eta garrantza egitea lortu zuen, operako bost ahotsak parodiatzen dituzten bost pertsonaiaren bidez. Pertsonaia horiek komedia koral dibertigarria osatzen dute elkarrekin.

Formatu erdieszenaratuan eta euskaraz gozatu ahal izango dugu emanaldia, Tabakaleraren eta Musika Hamabostaldiaren lankidetzari esker. Hain zuzen, opera hau tokian tokiko hizkuntzetara itzuli izan da, eta lehen aldiz entzungo dugu euskaraz. Hainbat euskal artista ezagunek interpretatuko dituzte operako ahotsak: Miren Urbieta-Vega sopranoak, Marifé Nogales mezzosopranoak, Beñat Egiarte tenorrak, Fernando Latorre baritonoak eta Pedro Larena baxuak. Arkaitz Mendoza arituko da musika zuzendari lanetan eta Ekaitz Unai González izango da eszena zuzendaria.

TRÍO ARBÓS – Abuztuak 28, 20:00 – Kurasaaleko Erabilera Anitzeko Aretoak

Zikloa Trío Arbós hirukoak itxiko du: 20 urtetik gora daramatzate pianodun hirukoterako errepertorioa zabaltzen haietzako espreski idatzitako obrak enkargatuz. Musika Sari Nazionala eman zieten 2013an, eta Musika Sari Nazionala eskuratu zuen beste musikari baten azken lana aurkeztuko dute Donostian, Teresa Catalán konpositore nafarrarena, hain zuzen ere. Musika Hamabostaldiak enkargatutako estreinaldi honekin batera, Arbós hirukoteak elkarrekiko oso ezberdinak diren hiru autoreren obrak interpretatuko dituzte: Salvatore Scirriano, bere mundu tinbriko onirikoarekin; Mauricio Kagel, bere umore eta antzerki-izaerarekin; eta César Camarero, bere sorkuntzetan zabaldu ohi duen elkarrizketa instrumentalarekin.

Cecilia Bercovich biolinistak, José Miguel Gómez biolontxelistak eta Juan Carlos Garvayo pianistak osatzen dute taldea. Trío Arbós Madrilan sortu zuten 1996an, Enrique Fernández Arbós (1863-1939) zuzendari, biolinista eta konpositore espainiar entzutetsuaren izena hartuta. Gaur egun, Espainiako ganbera talde esanguratsuenetariko bat da: errepertorioari dagokionez, Klasizismo eta Erromantizismoko (Mozart, Beethoven, Schubert, Mendelssohn, Schumann, etab.)



maisulanetatik, gaur egungo musikaraino. Trío Arbósentzat idatzi dituzte obrak Georges Apeghis, Ivan Fedele, Toshio Hosokawa, Luis de Pablo, Mauricio Sotelo, Jesús Torres edo Roberto Sierraren mailako konpositoreek.